

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

2.SAIOA

DATA: 2022-10-19
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 30 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia)- Goiener: Oier Etxebarria- Emun: Ihabar Arriaran.

AURKEZPENA – “MERKATU ELEKTRIKOA + FAKTURAK”

Goienerreko Oier Etxebarriak merkatu elektrikoak nola funtzionatzen duen azaldu du; eta horrekin batera elektrizitate eta gasaren fakturak azaldu ditu.

Ondoren galderak egiteko tartea zabaldu da zalantzak zituzten horientzat.

**Dokumentu honekin batera erabilitako aurkezpena.*

XEDEAREN ARIKETA

Talde osasuntsua, talde lerrokatua

TALDEA proiektua osatzen duten **personen arteko harremanez** osatzen da.

Taldeak osasuntsu egoteko lerrokatuta egon behar du, arrakalak ez sortzeko. Taldearen osasunak **eragin zuzena** izango du proiektuaren garapenean.

Taldekideak ongi sentitzeko eta taldea lerrokatuta egoteko taldearen **zertarakoa bat etorri** behar da:

1. kideek izan nahi dutenarekin
2. etorkizunean izan nahiko luketenarekin
3. landu nahi dituzten balioekin
4. partekatutako historiarekin



- Zereginaren zertarakoa da.
- Zerbait handiagoarekin konektatzen gaitu
- Gizarteari, herriari, komunitateari egiten dion ekarpena adierazten du
- Taldearen arima islatu behar du eta taldeko kideek egiten dutenarekin konektatuta egon behar du

Adibidez. Gozo jan osasuntsuagoak eskaintzea gizartearen ongizaterako

Talde txikietan xedearen proposamenak osatu ditugu:
Xede proposamen guztiak, hauek izan dira.

1.taldea:

Energia berriztagarriak erabiliz, erregai fosilen eta nuklearren murrizketa lortzea. Gure energia propioa sortuz eta horrela kanpo dependentzia murriztuz.

- Energia guztiontzat eskuragarri izatea
- Erregai fosilak murriztu.
- Dependentzia murriztu

2.taldea:

- Menpekotasun energetikotik askatzea
- Energia berriztagarriak erabiltzea.

3.taldea:

- Energia berriztagarriak sustatzea
- Dirua aurrezte
- Aldaketa klimatikoari aurre egitea
- Autonomia energetikoa

4.taldea:

- Energia subiranotasuna eta ahalduntzea
- Herrigintza
- Aldaketa hezitzailea
- 3 dimentsioren kontziente izan, norbera, komunitatea eta herria

HELBURUEN ARIKETA

Xedea edo helburu orokorra zehazten hasi eta helburu zehatzagoak definitzera pasa gara. Aurrez zehaztutako proposamen batzuk jarri ditugu paretan eta bakoitzak 2-3 helburu lehenetsi ditu.

Hau izan da emaitza:

- Herrian energia berriztagarrian oinarritutako proiektuak gauzatu – 16 boto
- Emisioak murriztea, energia berriztagarriak erabiltzeagatik – 15 boto

- Energia garbia eta segurua sortzea –11 boto
- Energia sortzea, Elgeta burujabea helburu izanda – 10 boto
- Erregai fosilen erabilera murriztea – 6 boto
- Herritarrak energiaren gaitan ahalduntzea – 3 boto
- Burujabetza energetikoa eta demokratikoa lortzea – 2 boto
- Trantsizio energetikoa bultzatzea – 2 boto
- Pobrezia energetikoaz amaitzea – boto 1
- Tokiko ekonomia bultzatzea – 2 boto
- Herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea gai hauen inguruan – boto 1
- Proiektuan ahalik eta partaide gehienak parte hartzea – boto 1
- Dirua aurrezteak – boto 1
- Herritarrei energia berriztagarrietan parte hartzeko aukera ematea – 0 boto
- Energia berriztagarrien inguruko erreferente bihurtzea Euskal Herrian – 0 boto
- Kotxearen erabilera murriztea – 0 boto

Gehien errepikatutako helburuak:

- 1. Herrian energia berriztagarrian oinarritutako proiektuak gauzatu – 16 boto**
- 2. Emisioak murriztea, energia berriztagarriak erabiltzeagatik – 15 boto**
- 3. Energia garbia eta segurua sortzea –11 boto**
- 4. Energia sortzea, Elgeta burujabea helburu izanda – 10 boto**

ITXIERA

Hurrengo bileretako planifikazioa azaldu du Ihabar Arriaranek.

Faseak	Eginbeharrekoak	Iraila	2022/10/5	2022/10/19	2022/11/2	2022/11/16	2022/11/30	2022/12/14
Hasiera ematea	Prozesua abiatu							
Prestatzea	Formazioak ahalduntzeko							
	EBK eta prozesua + espektatibak							
	Energia faktura - merkatu elektrikoa - pobrezia energ + xedea - helburua							
	Kooperatiba edo elkartea + talde lanketak abiatzea							
	Energia berriztagarriak - autokontsumoa ind. edo kolektiboa + estatutuak							
	EH.ko beste esperientzia batzuk + talde lanketak							
	Eratze prozesua abiatu							
Elkarrekin sortzea	Lantaldeetako lanketak + etxeko lanak							
	...							

Hurrengo saioa azaroaren 2an, 18:30etan izango da. Kooperatiba eta elkartearen arteko ezberdintasunak azalduko ditugu. Eta ondoren talde ezberdinetako lanketak abiatuko ditugu (talde juridikoa, komunikaziokoa eta energia taldea).